

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak kontratu publikoen % 22,6 gordeko du enplegu-zentro berezientzat

*Barcina Lehendakariak Kontratu Publikoen Foru Legeari lotuta hartutako neurriak jakinarazi ditu*

Viernes, 10 de febrero de 2012

Nafarroako Gobernuak, aurren, kontratu publikoen % 22,58 eta lizitatu beharreko zenbateko osoaren % 3,29 gordeko du irabazi asmorik gabeko Enplegu Zentro Berezientzat (EZB) eta Gizarteratzeko eta Laneratzeko Zentroentzat. Zentro horiek burutzen duten jardueren ondorioz 2012ko kontratuen portzentajea % 73,68 izatera igo da eta zenbateko osoa % 42,4 izatera, hau da, 3,8 milioi euro.



Kontratu Publikoen Foru Legea betetzeari buruzko ACEMNAk egindako txostenaren aurkezpena. Ezkerretik eskuinera: Mariano Herrero, Barcina Lehendakaria, Ángel Gastón eta José Muñoz

Datu horiek Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak [Nafarroako Enplegu Zentro Berezien Elkartek \(ACEDMNA\)](#) antolatutako ekitaldiaren hasieran egin duen mintzaldian aipatu ditu. Ekitaldia [Nafarroako Kontratu Publikoen Foru Legea](#) betetzeari buruzko txostena aurkezteko egin dute. Foru Legearen 9. artikulua dio Nafarroako administrazio publikoek gizarterakundeentzat kontratu publikoen zenbatekoaren % 6 gorde behar dutela. Gaur aurkeztu duten txostenak 60.000 euroko kostua izan du, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatu du.

Lehendakariarekin batera izan da Mariano Herrero [Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioko](#) presidentea, José Muñoz [Iruñerriko Mankomunitateko](#) presidentea eta Ángel Gastón ACEMNAko presidentea. Ekitaldian izan da, halaber, Lourdes Goicoechea Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilaria.

Barcina Lehendakariak Gobernuak Kontratu Publikoen Legeak agintzen duena betearazi nahi duela errepikatu du: "Portzentajeek adierazten dute nabarmen egin dugula aurrera lehen aipatu dudana bide horretan, baina funtsezkoena da, portzentajea betetzea oso garrantzitsua bada ere, administrazio publikoetan benetan jabetzen ari direla gure egitekoa gizartean baztertuta geratzeko arrisku gehien duten pertsonen enplegua izatea zaintzea dela".

Horretarako, Barcina Lehendakariak gogorarazi du iragan urriaren

27an enplegu babestuari babesa emateko Batzordea sortu zela, Lourdes Goicoechea Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilaria buru duena. Horren parte dira, Nafarroako Gobernuko ordezkariak eta enplegu-zentro bereziak bultzatu eta mantentzen dituzten elkarteak.